



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxa: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



UR PUBLIKOAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2014ko azaroaren 10eko saioan, **Euskal Herrian** uraren ziklo osoaren kudeaketa publikoa, integratutakoa eta parte-hartzailearen aldeko bere konpromisoa jendaurrean agertzen du, eta ondorengo funtsezko oinarriak bete eta bete arazteko konpromisua hartzen du, era berean horien ondoriozko lanak, eta administrazio publikoetan kudeaketa publiko eta parte-hartzaile hori (eta beste kudeaketa motak herritar ahalduntzean oinarritutakoak) benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

1) Ura giza-eskubide unibertsala dela deritzogu. Edateko uraren erabilgarritasuna eta banakako eta taldekako sarbidea izatea bermatuta egon behar dira pertsonen eskubide besterezin eta bortxatu ezinezko diren aldetik. Ura gizon-emakume guztientzat nahitaezko ondasun amaikorra da eta eraginkortasunezko eta solidaritatezko irizpideekin araupetu behar da eta berdintasun, zuzentasun, etengabeko egitea eta diskriminaziorik gabeko printzipioetan oinarrituta.

Ondorioz, 2010/07/28-ko A/RES/64/292 ebazpena babesten dugu, NNUU-ko Batzar Nagusiak hartutakoa kontrako botorik gabe, zeinen bitartez honakoa aitortzen da *“edateko ura eta saneamendua izateko eskubidea giza-eskubide funtsezkoa da bizitzaren gozamen osorako eta giza-eskubide guztientzat”*.

Ura izateko giza-eskubidea aplikatuz, horniduraren kudeaketa giza-zuzentasunez ezarriko dugu –ordaintzeko gaitasuna, ekonomi-zuzentasunaren aurrean –mozkina eta ordaintzeko borondatea tarifa-politiketan. Horretarako, gutxieneko dotazioa bermatuko dugu –zeinen balorea zehaztu beharko litzateke, baina mundu-mailan 60 eta 100 litro pertsona/eguneko dago-, eta hornidura ez eteteko konpromisua ordainketa eza justifikatutako gizarte-egoera kasua denean (eskuragarritasun ekonomikoa).

2) Kudeaketa eredu horren garapenean eta hobekuntzan aurrera egiteko, ikerketa eta garapen planak ezarri beharko dira hirietako uraren zikloaren gaietan, Unibertsitatea, profesional elkargo, aditu eta sektore-erakundeekin lankidetzat bitartez garatzeko.

3) Hornidura eta saneamendu zerbitzuak hiri-ziklo integratua direla aitortzen dugu zeinen kudeaketa banandu ezina da eta baterako moduan egin behar da.

Zentzu honetan, derrigorrezko jotzen dugu kudeaketa eredu integratua ezartzea emandako zerbitzuen talde-ikuspegia izaten uzten duena baita ura hartzen dugun ekosistemenena eta gure itzulerak isurtzen ditugunena, udalen eta bere kontratisten eskubideak eta



Gipuzkoako Ur Kontsultazioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



erantzunkizunak barne hartzen dituenak, eta herritarrenak eta erabiltzaileenak, giza-beharren aurrean eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko gai dena.

Kudeaketa eredu horren garapenean eta hobekuntzan aurrera egiteko, ikerketa eta garapen planak ezarri beharko dira hirietako uraren zikloaren gaitan, Unibertsitatea, profesional elkargo, aditu eta sektore-erakundeekin lankidetzat bitartez garatzeko.

4) Ura ondasun publikoa den neurrian; deritzogu, ibaiak, akuiferoak, aintzirak eta hezeguneak jabari hidrauliko publikoaren zati direla; eta hornidura eta saneamenduko zerbitzuak giza-eskubideekin eta herritarrekin lotetsita daudela. Zerbitzu horiek ez dira merkatuaren logikarekin kudeatu behar, negozio pribatuaren irizpide eta lehentasunenpean, baizik eta kudeaketa publikotik, irabazi-asmorik gabe, interes orokorreko zerbitzu bezela.

Uste dugu zerbitzu publikoak kudeaketa publikotik kalitate eta eraginkortasun estandar zorrotzenak beteaz eman daitezkeela, administrazio publikoko langileen konpromisoa eta erantzunkizunarekin kontatuz eta kudeaketa gardena bermatuz non herritarrek parte hartzen dutena.

Horregatik, espresuki adierazten dugu ze, uraren ziklo osoaren kudeaketa zein erakunde publikoak bere gain hartzen duen kontutan hartu gabe, arduratuko gara beraren titularitatea beti ehuneko ehun publikoa izaten, bere akzioduneriara enpresa pribatuak sartzen galeraziz.

5) Defendatzen dugu uraren ziklo osoaren kudeaketa sorgune garrantzitsua dela eta enplegu berriak sortzeko izan behar duela. Baina sahiestu behar da bereziki oraingo egoeratan langileen lan baldintzetan eta segurtasunean ez dadila prekarizaziorik gertatu. Erakunde sindikalekin lankidetzan, bidezko neurriak hartu daitezzen arduratuko gara bermatzeko, zein erakunde publiko kudeatzaileak zuzenean kudeatutakoa zein kontratekin erlazionatutakoa, enpleguen kalitate baldintzak, segurtasuna eta egonkortasuna. Uraren hiri zikloaren kudeaketan parte hartzen duten langileen lan-eskubideak bermatuta egon behar dira. Beharrezko mekanismoak jarriko dira langileek funtzionamenduan, kudeaketan eta zerbitzuaren politikak aurkezten parte har dezaten.

6) Arduratuko gara Gipuzkoako Ur Kontsultazioak erantzunkizuna erabili dezan bidezko erabakiak hartzeko bere eremuan uraren ziklo osoaren iraunkortasuna bermatu dezaten, Uraren Esparru-Arteztarauaren arabera, hiru eremu desberdinetatik:

- Ingurumena. Hornidura iturrien kalitatea babestuz, hiriko premiak asebetetzeko beharrezko baliabide gutxien erabiltzea bermatuz; kutsadurari aurre egiteko programak eginez, oinarrituta zein azpiegituren buruzko parte-hartzean zein



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxa: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



sentsibilizazio eta formakuntza programetan; ibilgu publikorako isurketen ondorioak gutxituz; eta ingurumen-afektazioak konpentsatuz.

- Ekonomikoa. Zerbitzua emateko benetako kostua zerbitzuaren erabiltzaileei jasanaraziz; eta nahikotasun ekonomikoa, zuzentasun, eraginkortasun, erraztasun eta gardentasun printzipioetan onarritutako tarifak aplikatuz.
- Egitura. Beharrezko inbertsioak planifikatuz eta eginez erabiltzaileei ura baldintza onenetan iristeko, uneoro aplikagarri diren arauen arabera; hornidura eta saneamenduko sareetako galerak kontrolatzeko eta gutxitzeko; uraren kalitatea erabilera bakoitzera egokitzeko; eta udal kolektoreetako sareak jasotako urak tratatu daitezzen berezko ibilgura isuri aurretik. Guzti hori egon dauden teknologia eraginkorrenak erabiliz.

7) Arduratuko gara erabiltzaileei horniduran eta saneamenduan aplikatzen zaizkien tarifetatik lortutako diru-sarrera guztiak, baita azpiegitura hidrauliko publikoen alokairuagatik edo lagapenagatik, diru-laguntzak, kreditu eragiketak, edo beste edozein baliabide, uraren ziklo osoarekin lotutakoak, aipatutako zerbitzuen kostuak ordaintzeko erabili daitezten.

8) Ulertzen dugu, hala eta guztiz ere, ez dela nahikoa kudeaketa publikoa bermatzea, baizik eta nahitaezko dela kontrol sozial eta demokrazia partehartzaileko modu berriak sustatzea, gardentasuna bermatzen dutenak eta herritarren parte-hartze eraginkorra eta proaktiboa, Aarhus Konbentzioak ezarri zuen bezela, 2003ko maiatzaren 26ko 2003/35 Zuzentarauak europear arautegian birmoldatua, eta uztailaren 18ko 27/2006 Legeak espainiar arautegian, "informazioa, parte-hartze publikoa eta ingurugiro gaietan justizia eskura izateko eskubidea" erregulatzen duena.

Horregatik, apustu egiten dugun kudeaketa eredua honakoa da: erakunde publiko kudeatzailea bere iharduerei eta erabakiei buruz kontuak eman behar dituena, zein menpeko den botere publikoei zein herritarrei.

Arduratuko gara herritar guztiek hiriko uraren ziklo osoko kudeaketaren oinarritzko informazioa eskura izan dezaten bermatzea, mekanismo batzuen bitartez:

- Kudeaketa eremu ezberdinetarako adierazle esangarri-multzoa ezarriz (teknikoa, finantzarioa, sozialak, ingurumena, ondarezkoak), telematika bidez herritarrentzat irisgarriak.
- Erakunde kudeatzailearen zuzendaritza organoek hartzen dituzten erabakiak eta ebazpen guztiak argitara emanez, baita hirugarrenekin kontratatutako zerbitzuen ematearen baldintzak ere.



Gipuzkoako Ur Kontsultazioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



- Gizarte Kontseilua ezarriz erakunde kudeatzailean bertan integratuta –Paris hiriko eredia emulatuz- benetako kontrol-ahalmenekin erakunde publiko kudeatzailearen Administrarritza Kontseiluak tratatzen dituen gai funtsezkoetan. Gizarte Kontseilua sozietate zibileko hainbat pertsonekin osatutako batzar batez osatuta egongo da eta gobernatuko da kide guztiak batzar nagusian onartutako aradiak.
- Gizarte Kontseiluko ordezkariak, hitzarekin eta botoarekin, uraren ziklo osoaren erakunde publiko kudeatzailearen Administrarritza Kontseiluan sartuko dira.
- Beharrezko baliabideak jarrita herritarrek kontsulta publikoak, informazio eskaera eta erreklamazioak aurkezteko erraztuz.

9) “Iturri”-ko ura edateko kanpainak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu eta botilako uraren kontsumoa eta erlazonatutako ingurumen-eraginak murrizteko, honako hauen bitartez:

- Iturriko ura kontsumitzeko informazio publikoko ekimenak eta ura erabiltzeko ohitura onak.
- Uraren kalitatea bermatzeko ahaleginak indartuz.
- Zentru publikoetan iturriko ura erabiliz.
- Iturri publikoen sare garrantzitsua sortuz.

10) Azkenik, indarrean dauden arauak (erregelamenduak, ordenantzak, etab.) itun honetako konpromisoetara egokitu daitezen beharrezkoa egiteko konpromisoa hartzen dugu, bereziki uraren giza-eskubidearen benetako aplikazioari buruz. Horretarako, hornidura eta saneamenduko udal erregelamenduan ezabatuko dugu, aurreikusten duen kasuan, ez ordaintzeagatik hornidurarik gabe uztea ekonomia-ezintasun kasuetan.

Zentzu horretan dagokion arauan zehaztu beharko da, hemen ezarritako printzipioengan eragina duen edozein erabaki, izan daiteke zerbitzu mota hauen behin-behineko pribatizazio proposamena, informazio publikoko prozesu zabal eta sakon batenpean jarri Herritar Kontsultarekin burutuz eta bere emaitzak lotesleak izan daitezen nahiko bermearekin, partehartzaile-maila nahikoa iristen den kasuan.

Donostian, 2014 azaroaren 10a